



**Bizkaiko Foru
Aldundia**
**Diputación
Foral de Bizkaia**

Ogasun eta
Finantza Saila
Departamento de
Hacienda y Finanzas

OGASUN ETA FINANTZEN FORU DIPUTATUAREN 02361/2010 FORU AGINDUA, AZAROAREN 12KOA; HONEN BIDEZ, DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ETA BIDERATZEKO EREDUAK EMATEN DIRA.

Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra ezartzen du.

Martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez, Diru-laguntzen Erregelamendua onesten da, 5/2005 Foru Araua garatzeko. Bada, dekretu horren azken xedapenetako lehenengoan ahalmena ematen zaio Ogasun eta Finantzen foru diputatuari foru dekretu hori garatzeko eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Foru Administrazioak hainbat motatako diru-laguntzak ematen dituenenez, beharrezkoa da diru-laguntzon ereduak homogeneizatzea. Izan ere, horrela, lortuko da organo eskudunak efikazia handiagoz egitea diru-laguntzak emateko espedienteen tramitazioak dituen fase guztiak: prestaketa, fiskalizazioa eta onarpena.

Ebazpen honen bidez, diru-laguntza mota bakoitza emateko eta bideratzeko ereduak prestatzeko jarraibideak zehaztuko dira. Ereduak dira, batetik, diru-laguntzak norgehiagoka bidez zein norgehiagokarik gabeko araubidearen bidez emateko prozeduretarako, eta, bestetik, diru-laguntzok zuzenean emateko prozeduretarako.

Lehenengoetarako, norgehiagoka bidez zein norgehiagokarik gabeko araubidearen bidez ematen diren diru-laguntzetarako, aipatzen da zein egitura eta eduki izan behar duten foru dekretuek: bai oinarri arautzaileak zehazten dituztenek, bai deialdiak definitzen dituztenek, bai eta oinarri arautzaileekin batera diru-laguntzen deialdiak biltzen dituztenek ere.

Bigarrenetarako, zuzenean ematen diren diru-laguntzetarako, hau da, norbaiten izenean aurreikusita daudenerako edo interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiengatik ematen direnetarako, aipatzen da, batetik, zein den erabakiek edo ebazpenek izan beharreko egitura eta edukia, kasu bakoitzean eskuduna den organoaren arabera, eta, bestetik, zehazten da zein diren hitzartu daitezkeen hitzarmenak.

Definitzen diren ereduak zazpi dokumentutan biltzen dira, eta dokumentuok zati nagusi bitan antolatuta daude:

- Batetik, prozedura bakoitzak nahitaez jaso behar dituen klausula guztiak aipatzen dira, eta haietatik zein diren aukerakoak adierazten da.



**Bizkaiko Foru
Aldundia**
**Diputación
Foral de Bizkaia**

Ogasun eta
Finantza Saila
Departamento de
Hacienda y Finanzas

- Bestetik, diru-laguntza emateko modu bakoitzerako eredu bat proposatzen da, eta zehatz azaltzen da klausula bakoitzaren edukia.
Horretarako,

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra.-

Diru-laguntzak emateko ereduak onestea. Ereduok, hain zuzen ere, foru agindu honi eranskin gisa atxikitako dokumentuetan biltzen dira.

Azken xedapena

Foru agindu hau 2011ko azaroaren 15ean jarriko da indarrean, eta foru sailletako zerbitzu orokorrei eta foru erakunde autonomiadunei jakinaraziko zaie.

Bilbo, 2010eko azaroaren 12a

OGASUN ETA FINANTZEN FORU DIPUTATUA

José María Iruarizaga Artaraz